

**ctb**

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

PRENTSA-OHARRA

BGPk otsailean ezarriko du Barik txartela sakelako telefonoaren bidez modu masiboan kargatzeko sistema

- **Hasiera batean, aplikazioak telefono “adimentsuetan” funtzionatuko du: Android 4.0 edo sistema-eragile berriagoa dutenetan, NFC teknologiaren bidez.**

Bilbo, 2015eko abenduaren 4a.

Hurrengo urteko otsailaren erditik aurrera Barik txartela sakelako telefono adimentsuen bidez kargatu ahal izango da. Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) kargatzeko milaka toki gehitzeko aukera emango duen sistema bat ezarriko du, 740 erabiltzailez osatutako talde batek uztailearen erditik sakelako telefonoetarako aplikazio bat probatu eta proba hori ondo atera ostean. Horretarako, BGPk dagoeneko hasi du Barik txartela “smartphone”-aren bidez kontsultatzeko eta kargatzeko zerbitzua ustiatu eta mantenduko duen kontratua lizitzatzeko prozesua.

Aplikazio berriari esker, erabiltzaileak edozein Barik kargatu ahal izango du, nahi beste aldiz, edozein tokitatik eta eguneko edozein ordutan. Partzuergoak aurreikusitakoaren arabera, Barik garraio-txartelak “on line” kargatuko dira; horretarako, NFC (Near Field Communication) teknologia aktiboa duen sakelako telefono “adimentsua” erabili beharko da, eta ordainketa segurua egiteko atebidearen bitartez ordaindu beharko da. Beraz, edozein toki geografikotik eta txartelak kargatzeko toki finko batera joan beharrik izan gabe gehitu ahal izango du erabiltzaileak txarteleko saldoa, edo erosi ahal izango du Barik txartelari lotutako edozein garraio-txartel. Garraio Partzuergoko zuzendari nagusi Manu Tejadak goizean esandakoaren arabera: “horrek nabarmen hobetuko du garraio publikoaren erabilera”.

Ticketing sistemen eremuan izaten diren azken aurrerapen teknologikoak, pixkanaka, Bizkaian ezarri nahi ditu BGPk; hain zuzen, proiektua BGPren politika horren barruan sartzen da. Tejadak adierazi du teknologia hori otsailaren erditik aurrera ezarriko dela modu masiboan “txartelak kargatzeko eta informazioa jasotzeko eragiketak errazago egin daitezen”. Eragiketa horiek, gaur egun, Barik txartela kargatzeko ohiko tokietan egin ahal izango dira (Metro Bilbao, Euskotren, Euskotran, Renfe –Feve barne-, Larreinetako funikularra, Artxandako funikularra, Bilbobus eta Bizkaibuseko kabinak, tabako-dendak, kioskoak, merkataritza lokalak eta BBK-ko kutxazainak). Gaur egun 1,3 milioi Barik txartel baino gehiago daude zirkulazioan, eta txartelak kargatzeko 800 puntu baino gehiago aurki ditzakegu Bizkaia osoan.

Txartelak “smartphone”-aren bitartez kargatzeko proiektu honetan 96.000 euro inbertitu ditu dagoeneko BGPk. NFC teknologia duten Android gailuetarako aplikazio bat sortu da, eta horren bidez haririk gabeko komunikazioa eduki daiteke (irispen laburrekoa eta maiztasun handikoa) gailuen artean; kasu honetan, txartelaren eta sakelako telefonoaren artean. Eragiketa kriptografikoak eta Barik txartelak egiaztatzeko eragiketak ere jasotzen dira proiektuan; hau da, ordaintzeko atebide segurua eta transakzioak berme osoarekin egiteko aplikazio egokiak ditu.


Proba pilotuan parte hartu duten erabiltzaileek balorazio oso ona eman diote diseinatutako ereduari. Horretarako, lehenbizi, 7.000 informazio-kontsulta egin dituzte eta txartelak kargatzeko 1.500 eragiketa egin dituzte (guztira, gutxi gorabehera, 20.000 eurokoak). 1 eta 5 arteko eskalan, partaideen % 54,3k puntuazio altuena (5) eman zioten txartelak kargatzeko sistemari; eta % 29,2k 4 puntu eman zizkioten. Baina, erabiltzaileen % 98,2k aplikazioa erabiltzeko gomendatuko liokete lagun bati.




ctb

bizkaiko garraio partzuergoa
consorcio de transportes de bizkaia

Txartelak kargatzeko funtzioaren gaineko balorazioa



Lagunei aplikazioa erabiltzea gomendatuko zenieke?



Beste alde batetik, gaur goizean, Garraio Partzuergoak Nexus 5X markako sakelako hiru telefono eman dizkie, sari gisa, proba pilotuan parte hartu zuten hiru pertsonari. Irabazleak hauek izan dira: Mikel Santamaria, Marta Gonzalo eta M^a Eugenia Moro.

Informazio-bideoa: www.ctb.eus

Abenduaren 9etik, asteazkenatik, aurrera Barik txartela BGPren webetik kargatu ahal izango da

Abenduaren 9etik, asteazkenatik, aurrera Bizkaiko Garraio Partzuergoaren webgunea (ctb.eus) kontakturik gabeko Barik txartelak erosteko beste bide bat izango da. Edozein erabiltzailek BGPren webgunean bertan kargatu ahal izango du Barik txartela (anonimoa edo pertsonalizatua), horretarako erregistratu beharrik izan gabe. Eragiketa hori egin ahal izateko, alabaina, erabiltzaileak bere Barik txarteleko 13 identifikazio-digituak (txartelaren atzealdean agertzen direnak) sartu beharko ditu.

Ondoren, webgunean ikusiko dira zein zenbateko karga daitezkeen eta zein epe-txartel eros daitezkeen, betiere kontuan hartuta Barik sistemaren funtzionamenduaren baldintza orokorrak eta txartel horrek sisteman sartuta dituen datuak. Gaur egun Barik txartel batean karga daitezkeen txartel guztiak erosi ahal izango dira: diru-txartela (Creditrans edo Gizatrans) eta Metro Bilbao, Gazte Metro, Gazte Bizkaibus eta Gazte Bilbaoren epe-txartelak.

Finantza-txartel baten bidez ordaindu beharko da webgunean egindako karga, hau da, ordainketa segurua egiteko banku-pasarela bidez. Webean ordaindu ostean, erosketa egin eta hurrengo eguneko 5:00etatik aurrera egongo da karga hori erabilgarri sisteman; une horretatik aurrera, erositakoa Barik txartelean kargatzeko prest egongo da.

Baina karga gauzatu eta Barik txartelean grabatu ahal izateko urrats garrantzitsu bat falta da. Erabiltzaileak txartela kontsultatu beharko du Metro Bilbaoko kargatzeko makina batean, Bilbobus eta Bizkaibuseko kabinetan, kioskoetan, tabako dendetan, eta Barik txartela karga daitezkeen merkataritzako establezimenduetan edo bankuko kutxazainetan. Une horretan, webaren bidez erositako txartela Barik txartelean kargatuko da. Barik txartela beste puntu batzuetan ere kargatzeko aukera pixkanaka ezartzea aurreikusi da. Garrantzitsua da azpimarratzea, gainera, aukera berri horrek ez diola inolako kostu gehigarririk ekarriko erabiltzaileari.

Txartelak webgunearen bidez erosteko ekimen hau Partzuergoaren politikaren barruan sartzen da, Partzuergoak pixkanaka sartu nahi baititu Bizkaian ticketing sistemen esparruko azken aurrerapen teknologikoak. Horrela, garraio-publikoaren erabilera erraztuko da.